

Galdegaia hasikera perpausetan (eta II) (*Amattoren uzta* liburuan)

Mitzel Kaltzakorta Mentxaka

Abstract

Nowadays, following one of Altube's laws (the informationally relevant phrase or galdegaia must be placed in front of the verb) this phrase is usually placed in front of the verb in Basque prose writing. In this article the author shows that in the book *Amattoren uzta*, don't place the galdegaia phrase in front of the verb in introductory sentences of narrative statements. In fact, in most cases they usually place it after the verb.

Laburpena

Gaur egun, Altuberen lege bat dela-eta (Galdegaia kokatu behar da aditz aurrean), euskal prosan aditz aurrean kokatu ohi da galdegaia. Artikulu honetan egileak erakutsi gura dau *Amattoren uzta* liburuxoak ez darabilela galdegaia aditz aurrean kontakizunen hasikera perpausetan, ezpabere atzean, eta nagusiro erabili be.

Keywords: informationally relevant phrase, *galdegaia*, word order, initial sentences, information zone, information complements

Gako hitzak: galdegaia, hitzordena, hasikera perpausak (oraciones iniciales), informazio gunea, informazio osagarriak, aldaera

0. Sartaurrea

Arinagoko artikuluan ahozko testuak aztertu genduzan, bizkaitar hiztun batzuek ekoiztuak eta *Hamaika abere-ipu* liburuan agertuak, eta esan genduan konklusinotzat %60an Bizkai hiztunek, liburuxokoek, haur egiten dabela Altuberen legea, kontuan hartuta lege honek, galdegaiaren lege honek, esaten dauala aditz aurrean ipini behar dala galdegaia.

Oraingo artikulua honetan be ahozko testuak jorratuko doguz, baina iparraldekoak, *Amattoren uzta* izeneko liburukoak, Mayi Ariztiak jasoa. Aztergaitzat dogu, gomutau daigun, zer kokaleku hartzen dauan galdegaia: aditz aurrea edo atzea. Osterantzean esateko, zenbatetan beteten dan galdegaiaren legea.

Aurreko artikuluan legez honetan be helburu bi doguz, zein baino zein garrantzitsuagoak:

1. Erakutsi gura genduke zelako ustela dan galdegaiaren legea *Amattoren uzta* liburuko ahozko testuetan, hasikera perpausetan bakarrik.
2. Jatorrizko perpausetan manipulau gura doguz osagaiak, eta alderatu osagai hurrenkerak, ea zeinetan irakurten diran errezen (edo gatxen) perpausak.

Hona hemen zelako pausoak emongo doguzan artikulua garatzeko: lehenengo jorratuko dogu *Adibideak aztertzen* apartadua eta gero *Konklusinoak*.

1. Adibideak aztertzen

Adibide guztiak (ahaleginak egin doguz euskera batuan ipinten) parte nagusi bitan sailkatu doguz, eta lehenengoak moltso bitan. Hona hemen sailkapenori:

1.1. Galdegaiaren legea ez dabe beteten

1.1.1. BAZEN(ZUEN) ERAKOAK

1.1.2. GALDEGAIA PERPAUS BAT DA

1.2. Galdegaiaren legea beteten dabe

Hasi gaitzean puntuok banan-banan jorratzen:

1.1. Galdegaiaren legea ez dabe beteten

Lehenengo arlo honetan 12 esaldi dagoz, zeintzuek ez daben beteten galdegaiaren legea. Goiko koadroan ikusten danez, mota bitakoak dagoz.

1.1.1. BAZEN(ZUEN) ERAKOAK

Lehenengo mota honetan bost azpimoltso dagoz.

1.1.1.1. Lehenengo aztertuko doguz perpausetan BA-aurrizki bidez hasten diranak.

Azpimoltso honetan adibide bi dagoz. Hona hemen:

- *II.Atxular apezarena*
[Baziren] **hiru apez**, bat Iruñakoa, bertzea Donostiakoa eta bertzea Atxular, Urdazurikoa.(18or.)
- *VIII.Ama-alaba batzuen ixtoria*
[Baziren], amarekin, **anaia-arreba batzuk**; aitarik ez zuten.(50or.)

Gure ustez, BA- aurrizkiak, adibideotan, funtzinotzat dauka aditza aurreratzea, eta ondoren emotea galdegaia (baltzez dago). Dotore eta irakurterrez zer dagoz perpausok holan hasita! Honan okertxoago geratuko litzatekez:

- *II.Atxular apezarena*
Hiru apez [ziren] bat Iruñakoa, bertzea Donostiakoa eta bertzea Atxular, Urdazurikoa.(18or.)
- *VIII.Ama-alaba batzuen ixtoria*
Amarekin, **anaia-arreba batzuk** [ziren]; aitarik ez zuten.(50or.)

1.1.1.2. Bigarren aztertuko doguz perpausetan behin osagaia daukenak lehenengo lekuan.

Adibide bi dagoz holakoak:

- *-IX.Kuiatxoren ixtoria*
Behin [bazen] **gizon bat**; izena zuen Kuiatxo.(56or.)
- *-X.Arttoren ixtoria*
Behin [bazen] **gizon bat** izena zuena Artto.(62or.)

Perpausok lorrindu egingo litzatekez BA- aurrizkia kenduz gero eta aditza kokatu galdegai atzean. Honan:

- *IX.Kuiatxoren ixtoria*
Behin **gizon bat** [zen] izena zuen Kuiatxo.(56or.)
- *X.Arttoren ixtoria*
Behin **gizon bat** [zen] izena zuena Artto.(62or.)

Horreek per^opaus onak litzatekez, jatorrizkoak bestekoak, *behin* elementua atzeratuko bagendu aditz ostera (berau arrunta ipuin hasikera askotan). Honan:

- *IX.Kuiatxoren ixtoria*
[Bazen] behin **gizon bat**; izena zuen Kuiatxo.(56or.)
- *X.Arttoren ixtoria*
[Bazen] behin **gizon bat** izena zuena Artto.(62or.)

1.1.1.3. Hirugarren ikertuko doguz perpausetan Asko bezala osagaia daroenek lehenengo kokalekuan.

Hiru adibide dagoz holakoak:

- *-I.Mutil baten ixtoria*
Asko bezala, [baziren] Urdazurin **hiru ama-seme**. (10or.)
- *-IV.Arotzaren ixtoria*
Asko bezala, [bazen] **gizon xahar bat**; bakarrik bizitzen zen bere etxean, eta bazuen anaia bat arotza. (28or.)
- *-XI.Hartzkume(r)en ixtoria*
Asko bezala, [baziren] **senar-emazte batzuk**.(72or.)

Perpausok lorrindu egingo litzatekez ipini ezkerreko aditza (kenduta BA- aurrizkia) galdegaiaren ostean:

- *-I.Mutil baten ixtoria*
Asko bezala, Urdazurin **hiru ama-seme** [ziren]. (10or.)
- *-IV.Arotzaren ixtoria*
Asko bezala, **gizon xahar bat** [zen]; bakarrik bizitzen zen bere etxean, eta bazuen anaia bat arotza. (28or.)
- *-XI.Hartzkume(r)en ixtoria*
Asko bezala, **senar-emazte batzuk** [ziren] (72or.)

Aurreko azpimoltsoko adibideetan esan badogu be arrunta dala *behin* osagaia eroatea aditz ostera, azkenengo azpimoltsoko adibideetan ezin geinke esan hasikera formulaea, *Asko bezala*, aditz atzera eroan leitekeanik. Ez dogu sekula ez entzun ez irakurri holakorik.

1.1.1.4. Azkenengo jorratu daiguzan perpausetan lehenengo kokalekuan osagaiaren bat daroenek orain artekoak ez besteren bat.

Horrelakoak lau adibide dagoz:

- *-VII.Itsasoar baten ixtoria*
Itasun [bazen] **jauregi bat**, nehork hartan bizitzen ahal ez zena.(46or.)
- *-XV.Hiru anaia-arreben ixtoria*
Etxe batean [baziren] **seme bat eta bi alaba**; aita lanerat joana zuten. (116or.)
- *-XVI.Errege itsu baten eta bere hiru semeen ixtoria*
Munduan bertze asko den bezala eta orain ere hobe bailiteke holako bat izatea Frantzian, gauzak ongi joatekotan, [bazen] **errege bat alargundua** eta denbora berean itsutua

zen; eta diaroetan, erran nahi baitu kazetetan, atzematen zuten bazela ur batitsuak sendatzen zituena. (122or.)

- -XIII. Gizon pobre baten ixtorioa
Gizon pobre-pobre batek [bazuen] **anaia arras aberats bat**, eta arto buruxkak bildu zituen pobre hark, eta joan zen bere anaia aberatsarengat ea gaitzirua prestatuko zion bere arto buruxken neurtzeko. (94or.)

Perpauoi kendu ezker BA- aurrizkiak, eta aditzak galdegai osteetara eroan, alperrikaldu egingo gendukez, nekezagoak egingo gendukez irakurteko. Izan be, zenbat eta aditza aurrerago egon, orduan eta errezago irakurten dira perpauak.

Moltso horretako perpauetan osagai diferentek dagoz hasikera kokalekuetan, eta ezin esan, danak atzeratu leitekezanik. Lehenengo perpau bietako osagai biak, denporazkoak (*Itsasun* eta *Etxe batean*), eroan leitekez atzerago, aditz atzera:

- VII. *Itsasoar baten ixtorioa*
[Bazen] *Itsasun jauregi bat*, nehork hartan bizitzen ahal ez zena. (46or.)
- XV. *Hiru anaia-arreben ixtorioa*
[Baziren] *etxe batean seme bat eta bi alaba*; aita lanerat joana zuten. (116or.)

Bada oraindino BA- aurrizkidun perpau bat; baina, besteak ez legez, UKAN adiztuna, zerrendako azken adibidea. Hona hemen berriz parauta idatzita dagoan bestean:

- XIII. Gizon pobre baten ixtorioa
Gizon pobre-pobre batek [bazuen] **anaia arras aberats bat**, eta arto buruxkak bildu zituen pobre hark, eta joan zen bere anaia aberatsarengat ea gaitzirua prestatuko zion bere arto buruxken neurtzeko. (94or.)

Hor be galdegaia aditz atzean dago. Hurrengo perpauetan, lehenengoan galdegaia aditz aurrean dago; bigarrenean, aditz ostean. Perpaua osoa honetara emongo litzateke gaur egun:

- XIII. Gizon pobre baten ixtorioa
Gizon pobre-pobre batek **anaia arras aberats bat** [zuen], eta arto buruxkak bildu zituen pobre hark, eta bere anaia aberatsarengat joan zen ea bere arto buruxken neurtzeko gaitzirua prestatuko zion. (94or.)

Batzuek okerrago be emongo leukee, dagoan ohitura okerra dala-eta aditza -nagusia- azkenengo kokalekuan paretako eta mendeko perpau guztiak aurrean. Honan:

- XIII. Gizon pobre baten ixtorioa
Gizon pobre-pobre batek **anaia arras aberats bat** [zuen], eta arto buruxkak bildu zituen pobre hark, eta ea bere arto buruxken neurtzeko gaitzirua prestatuko zion bere anaia aberatsarengat joan zen. (94or.)

Holakoak idazten dabez askok eta askok.

Beste ohar batzuk be egin gura doguz ikusirik adibide batzuei buruz. Hartu daiguzan adibide jakin batzuk:

- VIII. *Ama-alaba batzuen ixtoria*
[Baziren], amarekin, **anaia-arreba batzuk**; aitarik ez zuten. (50or.)
- IX. *Kuiatxoren ixtorioa*
Behin [bazen] **gizon bat**; izena zuen *Kuiatxo*. (56or.)
- X. *Arttoren ixtoria*
Behin [bazen] **gizon bat** izena zuena *Artto*. (62or.)
- IV. *Arotzaren ixtoria*
Asko bezala, [bazen] **gizon xahar bat**; bakarrik bizitzen zen bere etxean, eta bazuen anaia bat arotza. (28or.)
- VII. *Itsasoar baten ixtorioa*
Itsasun [bazen] jauregi bat, nehork hartan bizitzen ahal ez zena. (46or.)
- XVI. *Erregeitsu baten eta bere hiru semeen ixtorioa*
Munduan bertze asko den bezala eta orain ere hobe bailiteke holako bat izatea Frantzian, gauzak ongi joatekotan, [bazen] errege bat alargundua eta denbora berean itsutua zen; eta diaroetan, erran nahi baitu kazetetan, atzematen zuten bazela ur batitsuak sendatzen zituena. (122or.)

Perpauetan lehenengo entidade bat aurkezten da, hurrenez hurren:

Anaia-arreba batzuk
Gizon bat
Gizon bat
Gizon xahar bat
Jauregi bat
Ur bat

Azkenengo perpauetan entidade bi aurkezten dira -**errege bat** eta **ur bat**-, baina gauzak ez larregi morapilotzeko, bigarrena bakarrik jorratuko dogu: **ur bat**.

Entitateon jarraian osagarriak, konplementuak datoz, hurrengoaz hurrengo etorri be:

*aitarik ez zuten
izena zuen Kuitxo
izena zuen Artto
bakarrik bizitzen zen bere etxean
nehork hartan bizitzen ahal ez zena
itsuenak sendatzen dituen*

Ikusten dogunez, honako eskeman dagoz emonda:

ENTIDADEA + osagarria(k)

Gaur eguneko euskeran beste joera bat dabil nagusi, ahozko ipuinotan hiztunek darabilena ez lakoa. Joera horrek osterantzeko ordena darabil:

Osagarria(k) + ENTIDADEA

Eta hurrenkera ezarri gero goiko perpausoi, honela geratuko litzateke:

- *VIII.Ama-alaba batzuen ixtoria [Baziren], amarekin, aitarik ez zuten **anaia-arreba batzuk**.(50or.)*
- *IX.Kuiatxoren ixtoria Behin [bazen] Kuitxo izena zuen **gizon bat**;(56or.)*
- *X.Arttoren ixtoria Behin [bazen] Artto izena zuen **gizon bat**.(62or.)*
- *IV.Arotzaren ixtoria Asko bezala, [bazen] bere etxean bakarrik bizitzen zen **gizon xahar bat**, eta bazuen anaia bat arotza. (28or.)*
- *VII.Itsasoar baten ixtoria Itsasun [bazen] nehork bizitzen ahal ez zen **jauregi bat**.(46or.)*
- *XVI.Errege itsu baten eta bere hiru semeen ixtoria (...), atzematen zuten bazela itsuak sendatzen zituen **ur bat**.(122or.)*

Horrela perpausok penazago irakurten dira jatorrizko ordenan baino. Zoritxarrez, holan idazten da nagusi-edo gaur egun; are okerrago be bai, aditza atzera eroanda (kenduta dabela BA- aurrizkia). Honan:

- *VIII.Ama-alaba batzuen ixtoria Amarekin, aitarik ez zuten **anaia-arreba batzuk** [ziren].(50or.)*
- *IX.Kuiatxoren ixtoria Behin Kuitxo izena zuen **gizon bat** [zen](56or.)*
- *X.Arttoren ixtoria Behin Artto izena zuen **gizon bat** [zen](62or.)*

- *IV.Arotzaren ixtoria Asko bezala, bere etxean bakarrik bizitzen zen **gizon xahar bat** [zen], eta bazuen anaia bat arotza. (28or.)*
- *VII.Itsasoar baten ixtoria Itsasun nehork bizitzen ahal ez zen **jauregi bat**,[zen].(46or.)*

Gaur egun, hegoaldean -edo Bizkai euskeran-behinzat, perpausotan IZAN barik (zen, ziren) zabalago dabil EGON (zegoen, zeuden).

Badogu beste ohar bat be perpaus bati buruz:

- *X.Arttoren ixtoria Behin [bazen] **gizon bat** izena zuena Artto.(62or.)*

Perpaus hori dagoanean emotea pekatu larria da gaur egun, inork (salbuespenak kenduta) ez leuke-eta *Artto* osagaia emongo aditz atzean (hausi egiten da galdegaiaren legea). Gainera, badago beste sasilege bat be, esaten dauana azkenengo lekuan menderagailua egon behar dala, -eN. Horren arabera, azken perpaus horretan *Artto* aditz aurrean erabiliko litzateke:

- *X.Arttoren ixtoria Behin [bazen] **gizon bat** “Artto” izena zuena.(62or.)*

Bada hirugarren ohar bat be. Perpaus honetan:

- *VIII.Ama-alaba batzuen ixtoria [Baziren], amarekin, **anaia-arreba batzuk**; aitarik ez zuten.(50or.)*

gure ustez, ez dauka ezer txarrik, baina gaur egun bada gramatika batzuetan lege bat, sasikoa, eta dino erreferentea ezaguna (gure adibide horretan *aita*) bada, eskatzen dauala artikulua definitua (ez partitiboa). Honan:

- *VIII.Ama-alaba batzuen ixtoria [Baziren], amarekin, **anaia-arreba batzuk**; *aita* ez zuten.(50or.)*

Gure euskeran arrunta da partitiboa (-RIK) erabiltea erreferentea ezaguna izanda be, esate baterako izen propio bat:

Gaur ez dator KepaRIK ala?

Horrela erabiltzen dugu, nahiz eta testuinguruan, egoera komunikatiboan, Kepa bakarra egon.

1.1.2. Lehenengo parteko bigarren moltso honetan -hemengo perpausetan be ez da beteten galdegaiaren legea- sartu doguz perpausetan galdegai-lekuan menpeko perpausen bat daukenak, jokatua zein jokatu bakoa.

Hona hemen dagozan adibide biak

1.1.2.1. Perpausa konpletiboa da:

- *III.Atxular oraino*
Atxularrek [manatu zion] bere beattarrari hil zezan, Meza ematen ari zelarik, kontsekratzioneko hitzak erraten zituen denboran.(24or.)
- *VI.Mutil gaizo baten eta birjina Maria neska txarren ixtorioa*
*Asko bezala, mutil batek [deliberatu zuen] **sehi joan behar zuela**.(36or.)*

Ikusten dogunez, perpaus aztergai bietan menpeko perpausak, galdegaiak, aditz nagusiaren ostean doaz, gaur eguneko euskeran ez bestera, iruntzitara. Gaur egun honan, batez ere, idatziko litzatekez perpaus aztergai biok (galdegaiak, menpeko perpausak, aditz nagusiaren aurretxoan dagozala):

- *III.Atxular oraino*
*Atxularrek bere beattarrari **hil zezan** [manatu zion], Meza ematen ari zelarik, kontsekratzioneko hitzak erraten zituen denboran.(24or.)*
- *VI.Mutil gaizo baten eta birjina Maria neska txarren ixtorioa*
*Asko bezala, mutil batek **sehi joan behar zuela** [deliberatu zuen].(36or.)*

Aldaerok jatorrizko perpausak baino nekezago irakurten dira, aditz nagusiak atzerago daukez-eta.

1.1.2.2. Perpausa jokatu bakoa da, nominalizazioa:

- *V.Fede ukatu baten ixtorioa*
*Bi mutil [joan ziren] **kofesatzerat***

Nork idatziko leuke holan gaur egun? Edozein zuzentzailek di-da sartuko leuke labana, eta honan parau:

- *V.Fede ukatu baten ixtorioa*
*Bi mutil **kofesatzerat** [joan ziren]*

Baina holakoz (jatorrizkoak lakoxeak) josita dagoz ahozko eta idatzizko testuak, klasikoak zein Auspoa sailekoak.

1.2. Bigarren parte honetan sartu doguz perpausetan galdegaiaren legea beteten dabena.

Adibide bi baino besterik ez dira agiri:

- *XII.Kamelu baten ixtorioa*
*Mundu honetan bertze asko bezala **gizon zaharsko bat** [abiatu zen] piaia (bidaia) luze bati buruz.(88or.)*

- *XIV.Errege baten ixtorioa*
*Errege baten semea **ihizirat** [joan zen].(100or.)*

Biok begitantzen jakuz bikinak: batzuentzat, beteten dabelako galdegaiaren legea; besteontzat, aditza darabilelako oso aurrera. Edozein modutan be, ez ginateke konkortuko, harrituko, galdegaiak agertuko balira aditz atzean:

- *XII.Kamelu baten ixtorioa*
*Mundu honetan bertze asko bezala [abiatu zen] **gizon zaharsko bat** piaia (bidaia) luze bati buruz.(88or.)*
- *XIV.Err°ege baten ixtorioa*
*Errege baten semea [joan zen] **ihizirat** .(100or.)*

2. Konklusioak

Oratuta soilik hasikera perpausari, 14 perpausetatik 12tan galdegaia agiri da aditz ostean (beteten ez dabela galdegaiaren legea) eta 2tan galdegaia aditz aurrean (beteten dabela galdegaiaren legea). Ehunekotan esateko, iparraldeko mintzatzaileretan *Amattonaren* *uzta*koek 85%ean hausten dabe galdegaiaren legea, eta erakusten dabe sasikoa dala lege hori.

Liburu aztergaiko hiztunek birrindu egiten badabe be galdegaiaren legea, asko hurreritzen dira Bittor Hialgok emoniko datuetara (Senez, 25. zb.), tradizionoko euskerearen datuetara, zeintzuk emon genduzan lehenengo artikuluan. Hona hemen datuok gogoangarri:

	Aditz ostean	Aditz aurrean	Bestela
Tradizionoko euskeran	79,0%	10,8%	10,2%
Gaurko euskeran	20,1%	51,2%	28,7%

1. Taula: Galdegaiaren kokalekua

Galdegaiak, aditz ostean paretako, ez dauka zertan luzea eta konplexua izan behar (holakoak beti aditz atzean), badira osagaia bakarreko galdegaiak be aditz atzean.

Iparraldeko hiztun azterturikoentzat garrantzitsuago da, gure ustez, non kokatu galdegaia (aditz aurrean edo atzean) baino aditza albait aurreren erabiltea.

Logikoa da pentsetea iparraldeko hiztunon narrazioetan hasikera perpausetan galdegaia agiri bada %85ean aditz atzean, perpaus osoan ere ehuneko berean edo antzekoan hausiko dala galdegaiaren legea.

3. Bibliografia

Arizti, M. (1982): *Amattonaren uzta*, Elkar argitaletxea.